

OLAIAREN KIXKURRAK

Bazen behin Olaia izeneko neskatxa txiki bat. 3 urte zituen eta bere lagun guztiak bere ilearekin harrituta zeuden, baita bere familiakoak ere, baina berari ez zitzaion gustatzen. Arazo larriak ematen zizkiolako ile kixkurak duxatzean, korrika egitean.. Bere gurasoek ez zuten larritzat hartzen eta Olaia gaixoa beti bere ilea aguantatzen. Mutila izan nahi zuen, baina alferrik. Egun batean esan zuen Olaiak :

- Ama ilea moztu egin nahi dut!.
- Eta amak esan zion :
- Nik ez dizut moztuko.

Olaiak etxetik ihes egin zuen, bere gurasoak bere bila ibili ziren. Olaiak amatxori dirua hartu eta ileapaindegira joan zen futboleko baloi eta jantziarekin ilea moztera, mutilak bezela. Ileapaindegira sartu zen eta ileapaintzailea ipurdi handi handia zuen atso bat zen. Olaia eseri egin zen eta, emakumea ilea mozten hasi zenean, kixkurak ezpatak bezala jarri zitzaizkion, eta emakumeak esan zion :

- Neska, zure kixkurak ezpatak bezala jarri dira! Bizirik daude!
- Orduan Olaiak esan zion :
- Ni ez naiz neska! Mutila nahi dut izan!
- Orduan emakumeak esan zion :
- Alde hemendik!
- Eta Olaiak, haserre, ospa egin zuen.

Ondo pentsatu eta gero:

- Badakit! Nik bakarrik moztuko dut ilea!

Olaia etxera joan eta iritsi zenean, komunean entzerratu zen eta guraizeak hartu zituen. Bere kixkur bat hartu eta klask! moztu egin zuen. Aurrenekoa bai baina hurrengo guztiak iliapaindegian bezala tente!, ezpatak bezala jarri ziren eta leher eginda bukatu zuen. Azkenean etsi egin zuen eta bere bizi guztian neska izan beharko zuela pentsatu zuen. Atea ireki zuenean bere gurasoak agertu ziren eta Olaiak esan zien:

- Nere bizi guztian neska izan beharko dut!.

Orduan gurasoak farre egin zuten eta Olaia ohera joan zen.